

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. EUSKALTEL, ASPALDIDANIK DARABILTEN PRIBATIZAZIOA
2. CARITAS EUSKADIKO 2014. URTEKO TXOSTENA
3. HITZARMEN EKONOMIKOAREN XANTAIA
4. FIFA-REN TRAPU ZIKINAK
5. PROPOSAMENA: EKAINAK 21- GURE ESKU DAGO, BORONDATEAK JOSTEKO GARAIA

1. Euskaltel, aspaldidanik darabilten pribatizazioa

Telekomunikazioen euskal enpresa nagusiak, Euskaltelek, burtsan kotizatzen hasiko dela iragarri berri du. Batzuek arrakastatzat eta lidergotzat jotzen duten hau, aspaldidanik dabilen pribatizazio prozesuaren azken pausoa besterik ez da; eta ez hori bakarrik, baloreen merkatuan kotizatzeak enpresaren kudeaketa eta aktibitatea etekinak lortzera bideratzea dakar, akziodunentzako mozkinak enpleguaren, kalitatearen eta emandako zerbitzuaren gaineratik: irabaziak beste guztiaren gaineratik. Ildo horretan dihardute Euskalteleko agintariek, prest baitaude mozkinak baino handiagoak diren dibidendoak banatzeko.

Are gehiago, burtsaratzea ez da denon eskura egongo. Soilik inbertsio funtsei emango baitzaie aukera (atzerrikoak lehenetsiz, Euskaltelen nahietan), espekulazio eta etekinen lorpenean aritzen diren funtsak izanik: inbertsore hauei putreak deitzen zaie ez dutelako aportazio berririk egiten, ezta inbertsio produktiborik ere, honek lan baldintzen eta zerbitzuaren kalitatearen gainbeherakada nabariak eraginez.

Historiari laburki so eginez, Euskaltelek honako bilakaera izan du:

- 1995ean sortu zuten Eusko Jaurlaritzak (%40a finantzatzuz) eta hiru aurrezki kutxek (gainontzeko %60a jarritz).
- 2005erako kapital pribatua akzioen %30aren jabe zen iada.
- 2012an enpresa 475 milioi eurotan baloratu zen: orduan Eusko Jaurlaritzak zituen akzioak (%7,45a) saldu zituen eta Kutxabankek bere partaidetza murriztu zuen (%68tik %49,9ra). Inbertsio funtsek %48a bereganatu zuten, gainontzeko %2a Iberdrolaren esku geratuz. Horrela, sektore

pribatuak Euskaltelen kontrola lortu zuen, administrazio kontseiluan gehiengo absolutua eskuratu baitzuen.

- Orain planteatzen denaren arabera, Kutxabankek akzioen %30a mantenduko du, gainontzeko guztia inbertsio funtsei utziz (Iberdrolak bere zatiarekin zer egiten duen arabera).

Bestalde, prozesu hau zalantzazkoak diren ekimen eta erabakien baitan gertatzen ari da: Euskaltelen oraingo balorazio berria 2012koa baino hiru aldiz handiago da (1.500 milioi eurokoa), inbertsio funtsentzat negozio borobila izanda, duela hiru urte enpresaren erdia merke erosi baitzuten, Kutxabank eta Eusko Jaurlaritzaren kontura egindako eragiketan.

Gainera, 200 milioi eurotako dibidendu ezohikoak banatu nahi dituzte, horietatik erdia baino gehiago (100 milioi baino gehiago) esku pribatuetara joango direlarik. Dibidendu honekin bakarrik, 2012an Euskaltelen akzioak erosteko egindako ordainketen zati handiena berreskuratuko lukete inbertsio funtsek.

Hori gutxi balitz, dibidendu horiek banatzeko 300-400 milioi euro inguruko kreditu bat eskatu beharko dute. Teorian mailegu hori burtsaratzeko eragiketa prestatzeko eta horren gastuei aurre egiteko eskatu litzateke, baina funtsean dibidendu bezala atera nahi duten kapitala ordezteko besterik ez da izango.

Horrela, pribatizazioan sakontzeaz gain, sektore estrategikoetan egiten ari den desinbertsioa konstatatzen da, kasu honetan oso errentagarria den sektore batean.

Euskaltelen 2013ko datu ekonomikoak

	Milioi eurotan	Salmenten gaineko portzentaia
Salmentak guztira	329,7	100%

Mozkin garbiak	50	15%
Pertsonal gastu totala	34,4	10%

Euskaltel oso errentagarria den enpresa denez, ezin ulertu daiteke erakunde publikoen jokaera horren erakargarria den aktibitatea alboratzean, ez bada ezkutuko interesengatik, sektore publiko eta pribatuaren arteko ate birakaria hala nola.

300 milioi baino gehiagoko salmentak izanda 2013an, Euskaltelek 50 milioi euroko irabazi garbia izan zuen; honek erakusten du egungo jabeek diru askoz ere gehiago bideratzen dutela mozkinetara langileen soldatak ordaintzera baino: zehazki %50a gehiago erabiltzen dute mozkinetara lan kostuak ordaintzeko beharrezkoa den kopuruarekiko.

Euskaltelek lanpostuetan murrizketa bortitzak eta lan baldintzen okertzeak egin ditu, etekinak hobetzeko premiagatik; horrela, 2012an zeuden 500 lanpostu baino gehiagotik 200 langile inguru kaleratu ditu externalizazio bidez (Sistemen eta Eragiketen sailtakoak, hain zuzen), beste enpresa batzuetara bideratu direnak Euskalteleko langile izatea utziz.

Guzti hau gaur egun inposatzen ari diren politika neoliberalen ondorio zuzena da, ongizate gizartea desmantelatzen dabilen politika, gizarte bezala ditugun interesen kontra doazen ekimenen bidez. Euskaltelen pribatizazio prozesuak aurrezki kutxen bankarizazio eta pribatizazio prozesuaren logika berbera dauka, gure ehun produktiboaren kontrako ekimenak izanik.

2. Caritas Euskadiko 2014. urteko txostena

Caritas Euskadik aurkeztutako datuek EAEn pobrezia eta gizarte-bazterkeria iraun eta kronifikatu egin direla egiaztatzen dute. Izan

ere, 2007 eta 2012 urteen artean Caritasek Euskadin arreta emandako pertsonen kopurua %50ean igo da, eta ordutik egonkor mantentzen da. Pobrezia-tasa ez jaisteak eta, denborak aurrera egiteak pertsona horien egoera larriagotu baino ez du egiten, gabezia sasoiatarako zeuzkaten baliabideak agortu eta euren egoera larriagotu egiten baita.

Caritasen esanetan hazkundeari buruzko datuak eta enpleguaren hazkunde-aurreikuspenak ez dute pertsonen egunerokotasuna islatzen. Izan ere, pobrezia eta gizarte-babesgabetasuna gora doaz oraindik, ez soilik pertsona kopuruari dagokionez, baita bizi-baldintzen prekarietateari eta itxaropenari dagokioenez ere.

Kalitatezko enplegua, herritarren eskubideen aitortza, politika soziala (hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, gutxieneko errenta, etxebizitza eta menpekotasun arloko zaintza) ezinbestekotzat hartzen dituzte. Enpleguari dagokionez erabatekoak dira. Langabeziaren arazoa konpontzeko ez da nahikoa lanpostuak sortzea, lanpostu horien baldintzak ere egokiak behar dute izan. Zentsu honetan, Lanbidek onartu du enplegua lortu dutenen %18ak oraindik ere DBE jasotzen jarraitzen dutela.

Babesgabetasun egoeran edo gizarte-bazterkerian dauden familiak ez dute epe laburrera hobetzeko modurik aurkitzen. Lana aurkitzeko ezintasuna, enplegura bideratutako prestakuntza jasotzeko aukera urriak, etab. jendearen motibazioa ahundu egiten du. EAEko pobrezia-tasak ez du behera egiten; are gehiago, handitu egiten ari da eta gabezia egoera larriak daude horregatik DBE eta bestelako politika batzuk ezinbestekoak dira. Ez soilik langabezia handiko sasoiatan pobreziaaren aurkako mekanismo gisa, baizik eta desberdintasunaren handitze hori geldiarazteko tresna gisa.

Egoera hau izanik hauek Caritasen proposamenak:

- Garapen handiago edo txikiagoa adierazten duten pobrezia, gizarte-bazterkeria eta desberdintasun egoerek hobera egin arte, ezin da krisiaren benetako konponketaz hitz egin.
- Gizarte garapena bideratzeko politikak inbertsio gisa ulertu behar dira, ez gastu gisa.
- Gutxieneko errenten (DBE), gizarte zerbitzuen, adingabeak dituzten familiekiko babesa, menpekotasunaren zaintza etab.en politikak sendotu behar dira.
- Banaketa egiteko konpromiso etikoan oinarrituz, beharizanen arabera fiskaltasuna bultzatu.
- Denontzako ongizatearen alde egingo duen gizarte bat eraiki.
- Pertsonen zerbitzura egongo den ekonomia bat sortu behar da.

3. Hitzarmen ekonomikoaren xantaia

Duela aste gutxi onartu zen Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa Madrilen.

Aldaketa hau UPNren Gobernuaren eta Rajoyren Gobernuaren arteko akordio baten ondorioa da, eta adostutakoa da Hitzarmenean biltzen dena.

Hitzarmenean egindako aldaketak bi arrazoi nagusi dituzte. Lehendabizikoa Volkswageneren aferari irtenbidea bilatzea da. Eta bigarrena, Estatu espainiarrak ezarritako zenbait zerga berri nork kudeatu eta erabaki behar dituen (energia elektrikoaren produkzioaren gaineko zerga, eta abar) adostea. Zer erabaki da honen inguruan?

Volkswageneren negoziazioaren historia luzea da.

Azken urteetan asko izan dira Espainiako Gobernuak atzera bota dituen Nafarroako Parlamentuan onartutako legeak. Eta besteak beste, Nafarroan onartutako zenbait zerga berri ere.

Beste alde batetik Nafarroak Espainiako Ogasunari 1.500 milioi euro zor zizkiola argudiatuz eskaera egin zuten Madrilen, Volkswageneren BEZaren afera zela eta. Eta dirutza hori ez da hutsala Nafarroarentzat, Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen erdia gutxi gora behera.

Hau guztiarekin, PPren Gobernuak Nafarroako zerga-sistema mehatxupean jartzea lortu du.

1.500 milioietako xantaia mahai gainean jarrita hasi zuten UPNk eta Montorok hitzarmenaren aldaketaren negoziazioa, azkar eta modu ilunean.

Emaitza espero litekeena izan da, hitz borobilen eta propaganda askoren atzetik, Montorok 1.500 milioietako eskaera alde batera utzi zuen.

Eta Nafarroan egindako eta Estatuak atzera botatutako zerga berrien aferaren arira, UPNk zerga hauek Estatuko legediaren arabera izatea onartu du, Nafarroaren zerga egiteko ahalmenari uko eginda. EAEko Itun ekonomikoan zen era berean.

Negoziatio hauek herriaren bizkar egiten dira beti, iluntasunean. Eta nola ez, Estatuaren eta Nafarroako Erregimenaren interesak errespetatuz.

Nafarroaren Hitzarmen Ekonomikoak erakusten diona baino errespetu gehiago merezi dute nafarrek. Hitzarmen honek ez du bermatzen herriak erabakitakoa errespetatuko denik.

4. FIFA-ren trapu zikinak

Pasadan hilabeteko bukaeran EE.BBetako Fiskaltzak FIFAn ustelkeria argitara eman zuen. Egitateak laurogeita hamargarren hamarkadaren hasieran hasi ziren eta kalkuluaren arabera 150 milioi euro inguruan legez kontra ordaindu dira. Ordutik gaurarte, FIFAk komisio bidez behin eta berriz eta sistematikoki, kirol gertaeren hedabideetako eta promoziozko firmen arduradunei ordaindu die. Presio eta fabore ekonomikoen bitartez lorturiko "akordio" hauek, FIFAk txapelketen emankizun eta publizitatean abantaila izatea suposatzen zuten.

Ipar Amerikako justiziak frogatutakoaren arabera eroskeria suposatu duten transakzio susmagarri gehienak estatu batuetan eta Ipar Amerikako banketxeak direla medio egin dira eta horregatik ikerketa EEBBetan hastea.

Hedabide ezberdinetan agertu den bezala, atxiloketa Suitzako poliziak egin zuen. Kasualitea edo ez, Suitzan 2018ko eta 2022ko Mundialen egoitzari dagokionez auzi penala ireki da, beraz harremanik ez duten bi kausa ezberdin martxan daude. Azken honek futbol erakundeak aurkeztutako demanda penalean du jatorria, Rusia eta Qatarren botoen irregulartasunean susmoa baitute.

Atxilotuez gainera, asko dira inplikatuak. Hala ere, ikerketan murgildutako guztiek berrautatua izan den FIFako ordezkari gorena, Joseph Blatter aldendu dute. Berriz hautatua izan bezain pronto, dimisioa aurkeztu zuen nahiz eta abendurarte funtzioetan karguan jarraitu.

5. PROPOSAMENA: Ekainak 21- Gure Esku dago, borondateak josteko garaia

Gure Esku dago herri dinamika ez da gelditzen, ekainaren 21erako antolatutako ekimenak

horren proba dira.

Erabakitze eskubidea abiapuntutzat, eta herri bat garelako, erabakitze eskubidea dugulako eta herritarron garaia delako oinarri izanik 2014eko giza kateari, Donsotian egindako mosaikoari jarraipena emateko borondateak josteko garaia da. Azken hilabeteetan herrietan oihal zatiak egin, margoztu, eraiki eta josteko aukera izan dugu eta datorren ekainaren 21ean guztiekin hautetsontzi erraldoiak eraikiko dira, etorkizunean gure borondatea eta erabakia modu librean adieraztea ahalbideratuko dutenak.

Egun horretarako ekitalde ezberdinak antolatu dira, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Baionan. Eguerdiko 12etan herri eta hiri bakoitzean jositako oihal zatiekin giza kateak egingo dira. Arratsaldeko 17,30etan izango dira ekitaldi nagusiak, hiriburu bakoitzean oihalak erabilia hautetsontzi erraldoiak egingo diren momentua. Oraindik ere oihalik egin ez baduzu denboran zaude, bai zure sarrera eta kamiseta erosteko ere. Parte hartu! Jarraitu dezagun bidea eginez, lortuko dugu eta!